


Maruri'tar Eramun
Buruñurduna

BIOTZA

ABESLARI



1927





M- 3870

R- 35430

B-6

IRATKE
Libreria Anticuaria
PAMPLONA

MARURITAR ERAMUN
BURUÑURDUNA

ATV

12.349

BIOTZA ABESLARI

(Gipuzkeraz)



ZORNOTZA 'N
JAUNGOIKO - ZALE 'REN IRARKOLAN
1927

Nihil obstat
Fr. Dámasus ab Inza
O. M. C.

IMPRIMATUR
Fr. Joaquin a Bertain
Min. Prov.
Pampilone 21 Julii 1926

IMPRIMATUR
Vitoriae 26 Novembris 1926
† El Obispo



IRAKURLEARI

*Emen dakaítzut, euskeldun irakurle,
gogo onez egindako lantxoá.*

*Idazlearen (eskritorearen) éro aztun-
ena, lan mamintsua egitea alde batera
utziafen, ¿ze arazo zala dan euskeldun
idazlearentzat bigafen éro, au da eus-
keldun irakurleak gutxi izenafen euren
begiko lana egitea.*

*Bada batzuek nai dute euskera gar-
bian, Beste batzuek oráztuan; besteak
mordoloan, eta ganerakoak zerean.*

*Nik guzien gogoa egin nai, ta guzi-
eri begia bete ezin.*

*Augaitik neure olefki zimel oek
biotz-beraz ártu zazuz, ta esker-zor
eukiko nazu, ta nere esker onean ba-
laitike, Jaungoiko lagun, urte bat edo bi
baru zuri bigafen olefki zimel sorta
eskeintzea.*

Aguí.

Maruri'tar Eíamun.

Muskaria, (Tudela) 1925-XI-20.

IRAKURÍ

ge, gi, erderazko gue, gui bezela

ĩ, erderazko ll bezela.

ř, erderazko rr bezela.

tx, erderazko ch bezela.

1

JAINKOTIAK

WATSON

AMA SORTZEZ GARBIARI

*Tota pulcra es amica mea et macula
non est in te. (Cant. IV.-7).*

Guziz edera zera Maria
Sortzetik lau zo gabea,
Zugandik gugana dagon tarie
Neurige benetan dala.

Gure Jainkoak gauza guziak
Onak idoro zituan,
Gauza guziak egin ondoan
Ikusi zituanean.

Bañan zu, Sortzetik ofen eder
Ikustean ixil dago;
Zure eder'tasun berdingabeak
Liluratu daukalako.

Ta ausitzean ixiltasuna
Ariko da zu goratzen,
Sortzetik asi zeradelako
Bere biotza gozatzen.

«Nere kutuna ede'ra zera»
Dizu zuri Jaungoikoak,
«Lauzo gabea nere maitea»
Dizu zuri Egileak.

«Berezietan yoranez nabil
Lore politak bilaka,
Lili ta loreri txuritasun
Urinkai gozo eskeka.

Bañan gauz oek zure iruditzat
Ez dira, uso ede'ra,
Gorago, neurigabe gorago
Zaudelako zu kutuna

Gauza oekaz lore txorlea
Nik nai det egin polita
Lore arden zuri eskeintzeko
Nere gogo ta biotza.

Zuk Sortzean zapaldu ziezun
Burua erensugeri
Gizadi guzti iruntzi naye
Zebilan pizti deungeri.

Orain ere, Ama, sañi sortzen da
Nere biotzen piztia,
Arden zure babesez zapaldu
Neronen grina gaiztoa.

Ondaribi, 1924.

BELENEN -

Ogasun - egaria
Daukazun gizona
Belengo estalpera
Zoaz gaur laisterka.

An emango dizute
Aurtxo Jaungoikoa,
Zuk maiteki maiteki
Gurtutzeko Bera.

An ikusiko dezu
Zure Jaungoikoa
Zu zeruratzearen
Txiro egiñik dala.

Maitasun gañak dio
Aurtxo Jainkoari
Zure zorunagaitik
Biotza urtu jañ.

Biotz-eske daukazu
Lastotxo ganetik
¿Zertarako biotza,
Ari emon ezik?

Zeru gelditu da gaur
Lenen aldiz utsik,
Gotzonak daudelako
Belenen poz-pozik.

Belenen ikusteko
Alatzen alatza:
Euren Jaun ta Jabea
Egiñik aurtxo.

Txikia anditzearen
Andia txikia,
Jainko guzi-alduna
aurtxo bat eginda.

Ondaribi, 1924.

PRANTZISKO DEUNAREN OGASUNA

Biotz andia, biotz ase-gaitza zan
Asis'taí Prantziskorena,
Ta Jaungoikoak eukan erabakia
Aren biotza asetsea.

Guda aintzaz edo beteko zalakon
Beraren aintz-egaría
Bere eñiaren guda-ikuñin azpian
Gudari yaí zan bera.

Tamalez euren auso perusatarak
Ziraden euren etsayak
Eta perusatarak ala beaíez
Goitu zituzten ausoak.

Menperatua bezela egondu zan
Prantzisko urte luzean
Perusako espetxe ilunean beti
Azkatasun ametsean.

Urte oretan ziur asetuko zan
Aren biotz gosetia,
Samiñez asetzekoa izandu bazan
Bere ludi-aintz sukara.

Azkenean itzulli zan aske etxera
Indaŕen ezer auldua,
Baña anditasun ametsetan piska bat
Len baño indartsuagoa.

Etxean burutik, ludi-aintz bideak
Kendu'nayan zebilela,
Ametsetan dakus guruzdun izkiluz
Bete zegon gaztelua.

Ta norentzat dira, Jauna, izkilu oek
Didarka dio Prantziskok,
Zuretzat eta zure gudarientzat
Darauntsa ari Jesukristok.

Eta andik laister gudakuntza ametsetan
Gudari zaldun bezela
«Aintzaz betea itzuliko naiz» esanda,
Irtan zan guda lekura.

Baño Espoleto-bidean, beñola
Paulo Deunari bezela
Artarako esan zion Jesukristok
Aukeratu ezeukala.

Ta atzera biurtu zan Prantzisko Deuna,
Buru makur zekafela,
Jaungoikoak eman nai zion bidea
Ezin asmatu zuala.

Bide ori igari nayan zebilela
Euki zun bigarren deya,
«Elikatu zazu, dio Jesukristok,
Bera datorren eliza».

Sakela diruz beteta urduri doya
Samuel bezin mentsua,
Bera zeto'oren eliza bilatzeko
Asis'tar Prantzisko Deuna.

Ta ikusirik Damian Deunan eliza
Noiz erori egoala,
Diruz ta izardiaz beriztatu zuan
Damian Deunan eliza.

Baña biotz-utsuneak dagerkio
Oindik asmatu etzula
Bigarren aldiz Jainkoak deituaren
Berak ager nai ziona.

Bitartean gaxotasun txit astuna
Prantziskok zuan igaro,
Ta senda aroan eguzki artzen zuan
Arkabayan egunero.

Zabayatik dakus ia uzta zazoyan
Iluntzia zetofela,
Unbriako ibar eder berdingabea
Ikusgarri zegola.

Soroak gari orlegiz estaliak,
Igaliz betek zuaitzak,
Lore ta pitxiz zoragarri apañak
Zelai ta bide basterak.

Txori abeslariak elkarèn leyan
Txorotxio alayetan,
Eguzkia berari biali nayan
Aguí ona izpi leunetan.

Noren biotza ezeban alaituko
Ikuskizun edera urak,
Biotz ori asetutekoa bazan
Edanik ludiko gauzak?

Baña Prantzisko gaztearen biotza
Len bezelaxe utsik dago;
Bere biotza egiña ez dalako
Ludi-gauzaz asetzeko.

Berak esan dezaken olerkariatz
«Ditudaz gauza guziak
Eta gauz bat bakarik ez detalako
Nik ezertxo ere ez daukat».

Berak ezekian zer zan gauza ori
Baña bai gauz ori zala,
Ta damayo utsune oren aztunak
Jaso eziñeko ituna.

Gazte alayak etori zizkiozan
Bera ola egoala,
Egurastera eramateko asmoz
Pizkortzearen laguna.

Ta oñak ibiltzeko aul eukiafen,
Biotza lafi eukan-ta,
Bere lafi ori iltzearen irten zan
Aekin egurastera.

Baña Prantzisko Deunaren oin aulduak
Ain biotz itunarekin
Ezin zuten, egiñal guzik egiñik,
Iñolaz biderik egin.

Eta eurek iritxi ziradenean
Arkaitz zuloren ondora,
Desaye lagunari, «ogasun bila
Noya ni zulo ontara».

Askitsa zan aro artan arkaitz zulon
Ogasuna egoala,
Baña ¿nork asmatuko Prantzisko Deunak
Bertan arkitu zuana?

Jesus gurutziltzatua arkitu zuan,
Eta begiratzen dio,
Ta itz dagio; ta Asistara arkiten da
Goi-maitasuna dario.

Ta irten zoriontsu arkaitz zulotik
Ogasun ona arkituta,
«Maitasuna dago, maitatu gabea»
Gizon guziri ojuka.

Ondaribi, 1924.

JESUSEN IZENA

Jesusen izena
Izen gozoa
Izkiz txiki baña,
Mamiz andia.

Jesusen izena
Gaizkale-izena
Donokin sortuko
Izen eztia.

Argia, bidea
Ta olio
Da gizadientzat
Jesus izena,

Zinistedunentzat
Ezti aoan,
Doñu eresintsu
Belarietan.

Argi biotzean,
Dizti gogoan,
Eta itxaropena
Guzin uztean.

Gogo ekaitzetan
Jesus esanda,
Bare jariko da
Gure barena.

Guñtu donokian,
Maite ludian,
Eta ikaragari
Gaiztotokian.

Jesusen izena
Nun nai indara,
Nai det izan beti
Zure zalea,

Jesusen izena
Goratu beti,
Ta sañi oguzi
Maite-maiteki.

Izan zaite nitzat
Jesus izena,
Bizi nazeñ arte
Nere irazkaya.

Jesus nai det esan
Azken arnasan
Donoki-zorunan
Sañtu naitean.

Ondaribi, 1924.

JAINKO - EGAÑA

Ikusteko egiñak
Dirade begiak;
Ta argiaretaz beti
Dira ayen galdeak.

Maitatzeko egiña
Da nere biotza;
Ta maitasun, maitasun
Jabilkit ojuka.

Jainkoentzat egiña
Da nere gogoa;
Jainkoa ta Jainkoa
Jabilkit eskeka.

Ipáretik kendua
Edo aldendua
Artega urduri dabil
Beti itsas-orátza.

Niri ere gogoa
Jabilt era ortan
Jainkoagandik alde
Egiten dunean.

Zeu egañi da Jauna
gogo egaña,
Ez laga urik edaten
Zeugandik landara.

Ondaribi, 1924.

MIREN IZENA

Donokiko-bide argitzeko
Dan goizeko izar argia
Izango da orain eta beti
Mirenen izen gozoa.

Ekaitzean neure gogo-ontzia
Érez dijoa, ondora
Laister agertutzen ezpazayo
Itsasoko artizaia.

Bere otseindarien aoan
Mirenen izen gozoa
Gogoko bizitza sendoaren
Ikuñ ziuña alegi da.

Mirenen izenak gure aotik
Ez du egin bear alde,
Zitzaldian galduk geralako
Onen laguntzarik gabe.

Obenaren pisuaz elxitu
Bizi zeraden gizona,
Oguzi zazu Miren izena;
Zeukin dezu itxaropena.

Argian aurrean iges dagi
Ludian iluntasunak,
Miren ustetsu esan ezkerro,
Iges dagi diabruak.

Ekaitz-itsasoan dabilenentzat
Argi da Miren-izena,
Argi ontatik aldentzen danak
Gañean du ondamena.

Miren izena ezta baño
Gozoago zera aotan,
Eta doñu eresintxu baño
Bigunago belarñan.

Ia beti daukagu erlea
Ezti gozoen ganean,
Eta ereslari, ertilari,
Eresintxuen artean.

Nik ere Miren izen gozoa
Euki nai beti aoan,
Betiro bizi nai detalako
Atsegiñen jarloan.

Ondaribi, 1924.

LENBIZIKO ALATZA

Baġadoliseko seme kutuna zan,
Simon mutiko ontsua,
Benetan ura zan aingeru artetik
Iges egindakoa.

Bere aitan baratzan dauden loreak
Anei margokok dira,
Begirako edefak diradelarik
Dute likurt gozoa.

Bere abotz zoli ta gozoarekin
Dabil ufetxindora,
Eresintasunez baratz ta ingeruak
Betetzen dituala.

Ta lillen artean erlea baño
Luñinkatuagoa,
Bera lez urduri dabil mutikoa,
Lore polit bilaka.

¿Zer zabiliz joranez, zer egin biozu
Gaur zuk ene kutuna?
Gelan zeruetako nere amari
Aldaretxo polita.

Etoñi da gaua, amaitu ditu lanak,
Piztu ditu argiak,
Aldaretxua jañi du ikusgarria
Erazkunez aurtxoak.

Eta pozik bere ama gurtzearen
Dio «Agur Maria»,
Baña amets gozoak artu zuan arin
Egolako nekauta.

Lo, lo, kutuntxo, amaren magalean
Musuka ta sabuka,
Lo lo kutuntxo esnatzen bazera zu
Ere egingo zera-ta.

Amets gozoan dago mutikoixua
Ta keskan diabrua,
Aingeru artean jostatzen dagola
Sutu dio aldara.

Une gutxi bañuan gusi egoan
Ia su ta garetan,
Mutikotxuak irauten du oindik
Bere amets gozoan.

Eta etxekon oru ta eskanbilak
Esnatu dute aña,
Ta biotzez, ikara sañtu baño len
Dio, «Agur Maria».

Gauza añaña, ez keak ez suak
Ez dute laga azterna,
Au da Eñojas'tar Simon Zorundunan
Alatzetan lenena.

Ondaribi, 1924.

JESUSEN BIOTZA

Jesusen Biotza
Labe goria,
Kiskal or betiko
Nere biotza.

Etořia zera
Sua banatzen,
Nik nai det egon
Su ori artzen.

Iriřia zaude
Maitatzearen,
Ilko naiteke ni
Or sařtzearen.

Neure onagaitik
Il ziñan Jesus,
Ni maitatzearen
Itzuli zakust.

Maite du txoriak
Bere kabia,
Maite dek nik ere
Zure biotza.

Gogo txuriena
Zera kabia,
Beraz nai det euki
Biotz garbia.

Beti nai det egon
Zure Biotzan,
Bertati sartzeko
Goi-atsegiñan.

Ondaribi, 1924.



OTOITZA

Donokirantz biotza jaso-ta
Jaunari emailza
Apal eta ustetsu eskatzea da
Otoitz egitea.

Jesukristoren ibazietan
Ziñez iroztuta
Gogo gorantza, beti gorantza
Joatea dala.

Otoitza gogoak Jaungoikogan
Arnasa artzea da,
Ta donoki-mai ornitsuetan
Berak bazkaltzea,

Otoitz egitea gizadientzat
Nai ta ezeko da;
Adimenen dalako argia
Blotzen indarra.

Berak gure gogo-almenari
Damaye egiñera,
Ta berak ere ugari ekañ
Guri ogazuna.

Ta otoitzak donetzen du gure
Izate guzia,
Ta Jainko-legepera ekañ
Gure aragia.

Otoitzat dagi gizonarekin
Izaki beria,
Goyalde mendik baño gorago
Diziitsu daukana.

Gizona, oiñazpian daukazu
Añ txiriztkoñ,
Jausi nai ezpadezu, otoitzez
Eldu Jaungoikoa.

Ondaribi, 1924.

MARGARITE

Amazortzi urteko zan
Neska Margarite,
Neskarik edereña iñun
Ederak badire.

Neska yayo ta liraiña,
Ganera aberatza,
Gizonak zirikatzeke
Ludin bide eřaza.

Augaitik ari ludiak
Eskeintzen dizkioz
Gozatze ta ařosa lorak
Ařapatze asmoz,

Arosa-koroya tori
Buru apaintzeko,
Lili usai gozodunak
Luñinkai artzeko.

Gozabideak dituzu,
Orain da sasoya,
Etoñi bada laisterka
Gukin gozatzer.

Baña Miren alaba da
Neska Margarite,
Eta ez dute eramango
Guzin añten ere.

Miren alaba naizela
Ez naute eramango
Egiñalak egiñaren
Ni eramateko.

Beste zio batzuk ditu
Zio onen ganera,
Uzkurtzaren diztia ta
Jesusen omena,

Ta augaitik ukatzen du
Bere biotz-naya,
Zearo betetzearen
Jainko-agindua.

Ta egiñik asmo onekin
Lore txori edera,
Jaunari eskeintzen dio
Pozik bere opa.

Ondaribi, 1924.

AUSTERE

 Iñok autsa aiz esan ezker
Zapuzten aizen gizona,
Entzun zak gaur Elizak dikena:
Aize lez aro aizena
«Oroi adi auts aizela, gizona,
Ta auts itzuliko aizela»

 Ilezkoia aizelakoan edo
Bizi aizen piztixua,
Iñoiz nai badek betiko laga
Oren uste galgaria,
Entzun zak gaur Elizak dikena
Aize lez aro aizena.

lñoz ere burua maku'rtu
Nai ez dekan gizontxua,
Noizbait zentzun biden sartzeko gaur
Etor adi elizara;
lñok «autsa aiz» esan ezkeru
Zapuzten alzen gizona.

Eure buruan jabe osoa
Beintza bezela abilena,
Gal-bide ori utzitzearen
Ar zak burun apaiz-itza:
«Oroi adi auts aizela, gizona,
Ta auts itzuliko aizela».

Ire griña txarak asetzeko
Itufi loira abilena,
Ez dagokik iri ur zikiña,
Sutik ernai belarria
Entzun zak apaizaren esanan
Dagokikan osasuna.

Gero gozautzearen joranez
Ondasun bila abilena,
¿Zegatik abil beti iztiluan?
Ez dek ori ire bidea:
Nai badek egizko zoriona
Aukin beti auts-oroya.

Aizekerien sukañak jota
Urinkaitan abilena,
Ez adi beti oñela ibili,
Luñinkai gozo usaika;
Luñak igaliak emateko
Urinkai ez dik bea-ñ-ta.

Eskubideak zentzungetuta
Mendekoentzat ituna
Aizen gizon zital eta ankeña,
Ganean dek zigorada:
Jakín zak ik ere «auts azala
Ta auts itzuliko aizela».

Donoki-egañiz eremuan
Buru ukatzen agoana,
Sari-ordua zetorrek eta
Lasai zak ire biotza:
Autsa aiz ta laister daukak gogoa
Goi zorunera egaka.

Ondaribi, 1924.

NEKETAKO AMARI

Bizi zan ludian gizon kupigafi
Zaia zalarik itxu ta txiroa,
Bere samin andien gozagaritzat
Baukan txintxoaz zan alabatxua.

Txintxoaz ganera maitagaria zan
Gizon zaiaaren alaba kutuna,
Augatik zan beretzat esku ta oiña
Begi ta biotza, ia bizia.

Baia egun batean etsai ankerak
Dolorkeriz kendu zien alaba,
Ta irain eta oiñazez bizi kenduta,
Neskan gorpu bota zuten zulora.

Benetan zara zu gizonen artean
Érukigari ta adu txarekoa,
Éruki zaitut gizon érukioŕa
Zure etsaiengana betor zigoŕa.

Bizi zan ere ludian amatxo bat
Biotz minkor ta biguna eukana,
Ta semea eguzki bezin edeŕa
Ta kutunen artean kutunena.

Ama orek antxiñetik eukan bere
Biotz erdian espata zorotza,
Gau eta egun an sakon sakonean
Beti ziztadan eukitzen zuana.

Baña bere semearen begitadak
Ziraden beretzat oŕen gozoak
Eta itzulizen zituzten gozo-iturñian
Ezpata zorotzaren ebakiak.

Baña egun batean ikusi zuan
Bere semetxo edeŕ ta kutuna,
Etsairik amoratuen eskuetan,
Izekatu, iraindu, odoldua.

Ta gero ezelako erurik gabe
Gurutz-eriotzara epaitua,
Amak nai dio semeari lagundu,
¡Ta ezin! ¡au amaren naigabea!

Oste zitalak izekaz eta oruz
Gurutze bizkar ganean duala
Darama bere seme oren edera
Amoruz iltzeko urkemendira.

Bere odol bikaiñaren zipriztadaz
Galgatzen du kalbario bidea,
Bide oretan ikusirik ¿nor ez da
Zukin kupituko, ama gaxoa?

Bein kalbariora etori ezker
Boferuk josten dute gurutzean.
¡Nolako oiñaze bizi ta samiñak
Bere amarenak gurutz-oiñean!

Odolusturik gurutzetik oiñazez,
«Egari naz», diño bere semeak;
Amak nai dio ura eman semeri,
¡Ta ezin! ¡oek amaren nekeak!

Donokirantz begik jasotzen baditu
Laguntza donokitik ekañtzeko,
Ordu artan donokia burni dago,
Ez du andik ez laguntzik iritxiko.

Donokia burni, aldean biraua,
gurutzen semea ilik zintzilika,
Urunen gudari Josuri biotza
Ezpataz zulatzeko datořela.

Au guziaz Mirenen biotz biguna
Oĩñaze ta naigabez ganeztua,
Antziri ta negar malko samĩñez
Bere zoritxařak auenka ari da

«Zuek bidetik zoaztenak ikusi
Ta aztertu ondo nire oĩñazeak,
Esan gero ia iñork euki ditun
lñoiz nireak aña diradenak.

Benetan dira andi ta berdingabeak
Zure oĩñazek, Ama neketsua,
Oĩñaze guziak zurean ondoan
Itzala, itxura, besterik ez dira.

Ama neketsua efuki zaitut nik,
Ofen erukigafia zaude-ta;
Ta dalako obena zure boferua
Nai det euki oben-garbai andia.

Ondaribi, 1924

OSTIRAL GUREN (1)

Suzko sugeak zaurituta osasun bila
Burni-orizko sugeri begiratzera
Joranez etoriten ziradenak bezela,
Nator ni Jauna gaur kalbario-mendira.

Baïen guzia obenez zauritu detala
Natorkizu, Jauna, zure gurutz oñera,
Ta zu oben en zoïa ordaindutzegatik zaude
Lapur biren erdian gurutzen josia.

(1) Bayonan lenengo aipamen omenkoïaz saritua, 1924 Ira-
ïaren 12 GURE HERRIA'k antolatuko sariketan.

Gañetik eta bañenik zeatz zauritua,
Jainko izanaŕen, gizon itxura galdua:
¿Nun da, Jauna, zure begietako diztia
Eguzkia baño ederago bazera?

Buruan arantza-koroia daukazu Jauna,
Zure margo ederak, beltz-ori itxuliak;
Begiak sakon eta ilun, zuduŕa zoŕoztua
Ta esku-oĩnak ilize gogorez josiak.

Bulaŕa andituta, ta Biotza zulatua,
Zeu-aldeŕetik, Jauna, dana da eŕukia;
Baña bertan obendari itxutuen aldeŕetik
Agiri dan guzia, dana da amoŕua.

Zu oŕelan ikusita, Jauna, eguzkia,
Dago ilundua, ta luŕa dabil dardaka,
Eriotza, etsairik gogorena, bigunduta,
Expetxean daukazanak dabil azkeka.

Ta ¿nerekin zer izango da, Jauna, ni banaiz
Zure nekaldi eriotzan boŕerua?
Zure eriotzaren eŕukiaŕen eŕukiz
Ikusi nai det nere biotz au urtua,

Ta obenen garbai andiaz uste osoan
Nizaz oroi dizut, Jauna, lapur onakin;
Gaur bertan izango zera an goyan nerekin
Berak lez entzun dezadan poz andiakin.

Ondaribi, 1924

OBENA

Pozik ni bizitzen nintzan obena
Zer zan enekiala.
Nere bañuan poza ta zoruna
Besterik enuala.

Orduan berez lez sortzen ziraden
Nere biotz-baratzan,
Goiko Jaunari pozik eskeintzeko,
Lilirik ederrenak.

Oraindik enekian nolako zan
Lar-arantzian zauria,
Beti nere bañenen neukalako
Zorunen itulia,

Baña bein, ordu madarikatuan,
Lo zořok arřu nindun
Ta erensuge bidutzi izugari
Sařtu zitzaidan bařun.

Lo-zořotik esnatu nintzaneko
galdu zeukan baratza,
Bertako lili ta lore guziak
Seatzkiro ondatuta.

Garbai, aitormena, penitentzia
Ta gañerako ituna,
Niri kosta zait bertatik landara
Bidutzi botatzea.

Geroztik biotzeko baratzari
Kontu egiteařen,
Luzaroan egondu naiz ni zutik,
Nekauta egonařen.

Bero ta izotz galantak arřu ditut
Nere bizkař gañean,
Maiz busti ditut lora landarak
Bekokiko izardian.

Au ta guzti ere uztako aroan,
Igali on tokian,
Nik maiz arkitu ditut lar-arantzak
Nere blotz baratzan.

Ondaribi, 1924

MALTZURKERIZ ZERURA

Anei bider entzun degu maltzurkeriz
Joaterik ez dagola zerura,
Ta zintzo bidera jo bear duala
Joatea nai duanak bertara.

Baña dominikar edestik darusku
Bestera ere gerta daitekela,
Beñola eurretan sartu zalako ola
Sartu beñien irakaslaria.

Mutil gaztetxo ta ontsua sartu zan
Dominikaren nobiziaduan,
Augatik jariten zuen irakasleak
Nai zuan asmoa aren biotzean.

Aur Jesus ta Andre Mariarenganako
Jari zuan gaztetxon biotzean
Erazkun edo debozio sutsua,
Beste gauza on askoren artean.

Aur Jesus zeukala bere magalean
Egon nobisiaduko koruan
Andre Mariaren irudi edera,
Lorez apainduko aldaretxoan.

Irudi onen aurrean belauniko
Egoten zan luzaro gaztetxoa,
Arutz otoitz samurekin arendurik
Bere zeruetako amatxoa.

Amaren magalean eskuk zabalik,
Zegon aur Jesusen iruditxoa;
Zerbaiten eskeka balego antzera
Beti bere Amatxori begira.

Ikusirik beti praile gaztetxoak
Aur Jesus zerbaiten eske zegola,
Ta amatxok ezer ematen eziola,
Bein ari zan amatxori espaka,

¿Zergatik daukazu orén luzaroan
Ezer eman gabe aurtxo maitea?
Aurá bulaía edo beti eskeka,
Ta zuk berari ez eman bulaía!

Zure biotzan-puska, zure semea
¿Ez al dozu maite zeruko Ama?
Eman ba aurari eskatzen dizuna,
Bestela negáñez ariko da-ta.

Amak zuri bulaíik eman ezaíen,
Ez negáñez ari, ene aurtxoa;
Batere ezpadezu negaíik egiten
Nik ekaíko dizut zuri goxoa.

Esan eta egin ak egun batean
Sakelean ditu gorde goxoak,
Eta pozik eta joranez dijoa
Aur Jesusi eskeintzera koruan.

Eskua luzatuta, *fori goxoa*,
Dasayo praíle gazteak aurari,
Ta aur Jainkoak eskutxu luzatuaz
Íri-paíeka aítzen dio berari.

Egun bat eta bestean, amaika aldiz,
Onela gertatu oi zan koruan,
Ariketa bein baten aurtxo Jainkoak
Praile gazteari esan aritean:

«Safi goxoak ekañi bizkidazuz,
Ene maitea, nere aldarera,
Ta orain ordañez eramango zaitut
Nere zerutako goxotegira.

Gertatu zaite, enetxo, ainbat lasterren,
Nere goxotegira joateko;
Datofen igande autu detalako
Zu zeruetara eramateko».

Pozaren pozez bere irakasleari
Agertu zion beraren zoruna,
Ta irakasleari sartu ei zitzayon
Arekin joan nai bizi-bizia.

Ta joan nai oñek goituta, artu zuan,
Bada ezpadan, maltzuñen bidea,
Ta onela litza dagio iristearren
Berarekin zerura joatea.

«Ontzat damadala esango diozu
Aur Jesusi beren erabakia,
Arazo ofetan sartu berin legeak
Bear dan legez betetzen badira.

Ta euren legean irakasle gabe
Ez joatea inora da lenena,
Ta lege au bete ezkeron, lenbait-len
Beraren epaya bete dezala».

Gaztetxoak zintzo zintzo egin zion
Jesusi irakaslearen mezua,
Ta aur Jesusek ontzat artu ei zuan
Irakaslearen maltzurkeria.

Bearbada lenen aldiz kupituaz
Bere oyuran aintsin maltzurakin
Bayezko epai eman zuan Jesusek
Praile gaztean irakasleakin.

Eta urango igandean pozez beteak
Deyaren zai zeuden aita-semeak,
Eta joan ei ziran goxotegira
Elkarrekin ikasle-irakasleak.

BILDOTS DONEA

Maite nituala nik bildotsak
Nintzanen txikia,
Maite det ere Eukaristian
Nik Bildots Donea.

Txikiak maitatzen dituela
Berez lez bildotsak,
Ořela maitatzen dituela
Euren argazkiak.

Ni ere, ene Jauna, beti naizu
Gogoan txikia,
Augatik maite izango det beti
Nik Eukaristia.

Egunero Eliza Ama Deunak
Esaten dit niri,
Eskeñirik Bildots Donea,
Enetxoa, tori.

Biotzez ta ajolaz erantzunik
Aman esanari,
Eukaristian Bildots Donea
Aitu nai det sari.

Goi-sua ta indara zera Jesus
Zu Eukaristian,
Lagun zakidaz, goitu dagidan
Gogo erasoan.

Ondaribi, 1924

AITA GUREA

Antxina gizadiak ezekian
Otoitz ondo egiten,
Baizik bilduréz gure Jainkoari
Itz batzuek esaten.

Baña etori zan gure artera
Gizonen gaizkalea,
Ta erakutsi zigun guziori
Otoitzaren erea.

«Enetxuak otoitz egin beaŕen
Arkitzen zeranean,
Zineskeak ibili oi diran lez
Ez ibili iztiluan.

Aek itz-pila bila ibiltzen dira,
Egoteko itz jario;
Ala bakarik entzungo diela
Ustean daudelako.

Zuen Aitak, zuen otoitz aurretik
Daki zuen eskari,
Ta onela egingo diozute
Otoitz zuen Aitari.

.
. »

Ta darakusgu, apal, uste osoz
Aita gure eŕezatzen
Donoki Aitaren ume maiteak
Gu beti izan galtezen.

BEGOÑAKO AMA

«Aintzaldu dagigun
Gure Ama,
Begoñan daukogun
Goi-emaitza».

Euzko-mendiak,
Ernio buru,
Bai dituzela
Pitxiak.

Baña Artaganek
Daukan altisten
Ondoan dira
Belarak.

Begoñan dago
Gure Amatxo
Urezko alkin
Jarita.

Dalako gure
Itxaropena,
Bakalduna-ta
Biotza.

Entzun egizu
Euskaldun batek
Zuri dagizun
Arena.

Amatxo gorde
Euskal-erria,
Ez dagin galdu
Uskuriza.

Ondaribi, 1924



ASISTAR PRANTZISKO DEUNAREN ERIoTZA

Gauza beri-zale zeraden gizona,
Laster Porziunkulara,
An ikusi dagizun Asistat Deunan
Eriotza ariagaria.

Gure Aita, eriotza gañean dezu,
Esaten dio nagusik,
Eta Prantzisko Deuna zorun-zorunez
Kantari asten da pozik.

Kantari eriotz onari, dalako
Zorunaren geznaria;
Geyegi jasan erazi diolako
Gorputzari azketsika.

Ta botatzen ditu uruti lenagoko
Jantzi txiro ta zirpilak,
Euren ordeaz agerturik, ařeta andiz
Luzaro ondo gordekoak.

Ziřopa askoren antzera jantziten da
Ezti-jantzi ederakaz,
Ludira inoiz donokik bialdu ditun
Sořekorik onenakaz,

Alberna-mendin Jesukristok berari
Sariz emandako jantzik,
Jesukristok gorputzen bere irudian
Ezaritako bost zaurik.

Eta berari laguntzeko kantari
Ařenduaz lekaideak,
Asiten da goiko Jaunari kantari
Eskeř-abesti sutsuak,

Eta esker abestiri jardun dago
Bere azken unerañe,
Ariketa Jesukristo aingerukin
Bere bila etoñarte.

Ta ederitasun andi ta berezian
Daramate donokira
Ta donoki-aingeruk diote elkarñ
Añiturik ¿ori nór da?

Maitasun-penitentziak egin duten
Jesusen irudi bizi,
Erantzun zien Jesus ta Prantziskogaz
Zeuden aingeruak eureri.

Ta donoki-sari-emañe zuzenak
Donokitañen poz andiz,
Luzbelek arokeriz galduko alki
Damayo apaltasun-sariz.

Ondaribi, 1924

JOSE DEUNA

Faraonen aŕean
Moisen eskuetan
Bere esku-makila
Suge biurtu zan,
Eta Jerusalemen
Apaizan aŕean
Jose Donearena
Itzul zan lilian.

Gogo loretzalea
Jose Deuna zera,
Esku-makil antzera
Leof det nerea;
Zu bidez ikus nai det
Oso loretua,
Egizu nerea nik
Loretsu ikustea.

Bein Josuen aginduz
Eguzkia bera
Luzaroan egon zan
Zirkiñik gabea,
Ta ezan igutitzen
Jainko-Eguzkia
Deun Josek ezpazion
Ematen baimena.

Zera ere Deun Jose
Gogo-gidaria,
Zure agindupean
Zuzendu nerea;
Inoiz utzirik gabe
Donoki-bidea,
Ziur lritxi dagin
Jainko-Eguzkia.

ERIOZTA

Miloiriño joten dute
Izkuntza baten itzak,
Eta itz gozona ikurtzaten
Batera daude denak.

Itz gozona, *maitasuna*
Didar dagi gizonak,
Eriotza samiñena
Esan bea guziak.

Biotza dardar detala
Egon naiz ni askotan
Egon naizelako sari
Eriotzaz oroyan.

Proguak niri biotza
Samurtuten didate,
Dakitela enaiz egon
Biotz ikara gabe.

Progutan oioitz dagite
Apaizak diotela:
«Jauna, oneri bemayo
Betiko atsedena».

Bitartean nik ez dakit
Nor dan dakañkidana
Olango oroipen samiña
Nire oroimenera.

Agian txerrenak dabiltz
Gaiztokian didañka:
«Eman dayogun oneri
Betiko oiñazea».

Ondaribi, 1924.

KABIAN ARIA

Zazpi zortzi bat urteko
Mutikoa nintzala,
Bein pozafen joan nintzan
Kabikari mendira.

Ta bere pii itunekaz
Soso ajolatsuak
Erakutsi zidan laster
Nun egozan kabiak.

Banaka aztertu nituan
Oyanako zugatzak,
Gorputza uratu zidaten
Gogor'kiro arantzak.

Baño soso-kabi etzan
Inondikan agiri,
Ta le'egiñik biraka
Jari naiz zelatari.

Alako baten sartu da
Otar'tean soso ori,
Ta nik arin afikada
Jaurti nion berari.

Sosoa irten zan kabitik
Itun eta negartzu,
Ta ni eldu naz kabirantz
Pozaren zoriontsu.

Baña arin itzuli ziran
Nire pozak itunan,
Neuk jaurti nuan aña
Aurkiturik kaban.

Josuk bere neke bidez
Izuririk odola,
Arkitu nuan beñola
Nere biotz-kabia.

Ta pozik yafirik bertan
Santidade asia,
Biurtu zan donokira
Bere Aitarengana.

Ta uzta-arogan etoñ zanean
Bertora igali bila,
Bakañik arkitu zuan
Nere gaiztakeria.

Ondaribi, 1924.

SENDI DEUNA

(Berdagüerena)

Miren josten dabilen artean
Arotzean Deun Joseba
Bere semeari egiteko
Seaska bardingabea.

Josu ona,
Benetan zendun maite
gurutzea.

Josu maiteak ez du nai alan
Ta eskun arturik seña
Une batean seaska gayaz
Egin zuan gurutzea.

Josu ona,
Benetan zendun maite
gurutzea.

Mireneri, ikusirik egintza,
Jausi zayo jostoratza,
Ta Josu maiteari negaritzu
Onela dagio espa:
 Josu ona,
Benetan zendun maite
 gurutzea.

Biotzen landatu dagidazu
Gaimeluraitz-gurutzea,
Biotzen landatu dagidazu
Dagon neuk ikus gabea.
 Josu ona,
Benetan zendun maite
 gurutzea.

Josuk darauntso: «ene amatxu
Nai det igaro gurutza,
Bera dalako donoki luraz
Batuten duan zubia.
 Josu ona,
Benetan zendun maite
 gurutzea.

Ondaribi, 1924.

ERNIOKO GURUTZE DEUNA

*Guftu dezagun
Gurutze Deuna.
Ernio-mendin
Lerden dagona.*

Ernio-mendiko lorak
Luñinkai gozodunak,
Gau ta egun uñinkaitan
Añ dagizan gurutzak.

Ernio-mendiko galur
Mendi-galur leřdena,
ganen daukazun gurutzak
Bikaintzen zaituala.

Eusko-mendien artean
Ernio-mendia da,
Daukalako gurutz Deuna,
Mendirik gurtuena.

Mendia bezin zabala da
Ernioko eliza:
Emen bildurik euskoak
Dagitela otoitza.

Ernio-menditik gorantz,
Odei ta izar bařena,
Kedats itxuran dijoa
Onespen bila ařena.

Goratu ta gurtzen zaitul
Ernioko gurutza,
Bebil beti nere alde
Zure babes ontsua.

Ondaribi, 1924.

ZUMETXAGAKO MIKEL DEUNA

Zumetxagako
Mikel Deuna,
Zaitu egizu
Gure eria.

Beti zera zu
Mikel Deuna,
Aingeruetan
Gidaria.

Zumetxan zaude
Lañ aztuta,
Eliz bikaiña
Deus ez dala.

Euskon zinistek
Antxiñetan
Zuri egiña
Eskeñ onan.

Edeñtidea
Oso dala,
Gorta egiñik
Dakuzu ia.

Zumetxagara
Euskelduna,
Aintzaldutera
Mikel Deuna.

Ondaribi, 1924.

BI PENITENTEAk

Egun batean eremu baruan
Bi gizon zauden alkar ondoan,
Penitenteak izena'ren biak
Bere zalantzak bazitun gazteak.

Amataz ezik seme ondalean
Ugari zertzeladak Goizpe' Deunan:
¿Zergatik bada ori, irakaslea?
O'ra zeuri dagizudan galdea.

Etzetik igesi, amatxo daukala,
Inork ez du egin, ene gaztea;
Seme-ondaleak euki bazun ama,
Ezan izango seme ondalea.

Ligari daude ere obendariak
Jaungoiko etzetik iges egiñak;
Baña guztiak dirade umezurtzak,
Donokiko Ama maite ez dutenak.

Ondaribi, 1924

ARENA MIREN AMARI

Semeak ona danean
Eta arduraz azia
Goizen damayo amari
Poza, zain dan lorea.

Bariro poza damayo
Gero ilunabaréan,
Eta goizetik gauera
Poza emonalean.

Nik ere Donoki-ama
Nai dizut, goizean goiz,
Leyalkiro afen egin,
Eta aratsean beñiz.

Ta goizetik gaueraño
Ibili nai det, Ama,
Zuretzat aboan detala
Arena edo aintza.

Ondaribi, 1924

GOGOA

Beñola goizean goiz ikusi nuan
Loretxo usain gozoduna
Eguzkian izpi-leunak artuteko
Leunki zabalitzen ari zala.

Beraren edertasunak agertuaz
Egoan uringai jario,
Baratza ta ingeruak lurinkatuaz
Goizean goiztik gaueraño.

Ta iluntzin estaldu zanen eguzkia,
Goizeko loretxo edera
Urinkai gabea, tente egon ezinda
Luia jota egon zimela.

Nik bere ikusi neban zoriontsua
Beñola neurexe gogoa,
Onoimenen urinkai gozoz betea,
Jesus-Eguzkiri begira.

Baña bein niri ere estaldu zitzaidan
Neure eruz Jesus-Eguzkia,
Ta aiezkeror ora nere gogoa zimel,
Zutik ere egon ezin dala.

Ondaribi, 1924

NEGAÑA

Adu txarak utzi nindun
Umezurtz goizeti,
Amaren orde z negara
Emanaz ugari.

Txiro-ogasuna omen da
Negar-iturria,
Ta ni ogasun oretan
Naizela aberatza.

Negar-malkoak dirade
Gure gogo-odola,
Obenak atzinduteko
Gai oberik ez da.

Amalkak egin dutela
Negar-malko izuri,
Ta urengo izuri orduko
Donokia iritxi.

Itunen alai-bidea
Da negar malkoa,
Biotz estuk lasaitzeko
Ituri odiya.

Ez zaite estutu geyegi
Txiroa zarena,
Biotzean daukazula
Zorion-indaia.

Ondaribi, 1924

AZKEN-EGUNA

Azken-eguna
Dardar eguna
Iztiluena,
Ikara goñi
Ondamenena
Azken-eguna.

Epai zorotza,
Etorkizuna,
Betiraundean;
Gauza guztiak
Izugariak
Egun aretan.

Neure begiak
Izuri daude
Negar-malkoa,
Azken-egunaz
Itz egiteri
Jardun nengola.

Egun aretan
Joko dute bai
Tutu gofia,
«Guztiak arin
Epai tokira
Batu» diona.

Egun samiña,
Lari eguna,
Azken eguna,
Oraindik dizut:
«Nizaz eruki
Orduan, Jauna».

Ondaribi, 1924.

A'ENA DONOKIKO ARTIZA'ARI


Batel aulan gañean
Itsaso erdian,
Gogoa bai detala
A'isku andian.

Donoki-abe'ira
Ondo joateko,
Jaungoikoaren Amak
Dizu lagunduko.

Jaungoikoaren Ama,
Eruki zakiguz,
Donoki-artizara,
Argitu gagizuz.

Itxaropenez bete
la ba gogoa,
Ekiñalean beti
Donoki-playara.

Ondaribi, 1924



II

LANDAKO LORETXOAK



BIRIGAÑO

Eiztari ankerak il dit
Neguko gozagai
Donokiak bialduko
Birigaño kantari.

Ilbeltzeko egunetan
Baratzen zuaitzetan
Kantari egoten zan
Goiz eta arastietan.

Augaitik urétxindora
Baño bere geyago,
Nik nuan birigaño
Pizka bat maitiago.

Atsalde baten banua
Neronen baratzer,
Ta ez det entzuten iñun
Txoriaren doñua.

¿Zer egin dizute zuri,
Non zaude zu maitea?
¿Zergatik ez dezu bada
Abestuten txoria?

¿Eiztari ankeñen batek
Il al zaitu kutuna?
Zergaitik ba gaur daukozu
Nere gogoa iluna?

Didar onek amaitzean
Dakust zuaitzen azpin,
Eiztari ankeñen batek
Josirik berunakin.

Eiztaria, ez, arén, il
Txori abeslaria,
Ez, arén, berunaz yosi
Negu-gozagaña.

Ondaribi, 1924.

UDABAŔI-LOREA

Udabaŕi-lorea
Lora begikoa,
Zelan nik ordainduko
Zure ontartea.

Zurizka oria da
Daukazun margoa,
Agertzen zara ere
Ori ta goŕia,

Ez da izaki andia
Zure luñinkaya,
Baña zure aro da
Arorik onena.

Goizen poztuten ditu
Eguzkin izpiak,
Gau ituna igaro duten
Txoritxo izoztuak.

Era berean ere
Poztuten gera gu,
Negua igaro ondoan
Zakusgunean zu.

Gizonak bai daukate
Zugan onginaya,
Zu jaten zaituenak
Ei dauka urte ona.

Geitu ta zabal zaite
Lore begikoa,
Luzaron artu nai del
Zure ontartea.

Ondaribi, 1924.

ELUR-MALUTA (1)

Elur-maluta,
Jose Deun lora,
Izen polita
Jari dizuna.

Mutikoena
¡Axe bai pozat
Elur-maluta
Jauska ikusita.

(1) Bayonan, loretxo-sailan, lenengo sariaz saritua, 1924
Irailaren 15'an «Gure Heria»k antolatuko sariketan.

Eskolarik ez,
Txorik eskura,
Betoñ ugari
Eduñ-maluta.

Oñ didañ
Mutikoena
Dakustenean
Eduñ-maluta.

Ta pil ituna
Txoritxuena
Dakustenean
Eduñ-zuria.

Ludi onetan
Au da lagia,
Batzuen poza
Besten ituna.

Ondaribi, 1924.

PINPILINPAUXAK

Bein batean ninjoyan ni
 Bide zabaletik,
 Eta bi pinpilinpauxa
 Bide bastaretik.

Egazka joyazan biak,
 Ez goitik ez betik,
 Eta ni oldozkunetan
 Ninjoyan ondotik,

Biak ziraden zuriak,
Ganera politak,
Zirudian eukezala
Maitasun-izketak.

Zoruntsu zebiltzan ayek
Zeakak egiten
Eta batak besteari
Gauz asko esaten.

Baño, ¡ai! sasi artetik
Irten da txoria,
Ta une baten sartu daitu
Pikutik barura.

¡Ai, neure amets gozoak
Oraindik barénan!
¿Jango ote zaitue zuek
Beleak bidean?

Ondaribi, 1924

JAIZKIBEL

Gogoa zoriotsua ta
Biotz-itunak itota
Eukiko daitula doyanak
Mendiak gora zearka.

Saifitxo ditut nik igoak
Jaizkibel-mendi aldapak,
Eta erdi txoratua naz
Bein lortu ezkeru goyak.

Gora Igoa «Ongi etorri»
Diñost lafatxoriak an
Odeyetati zintzilika
Kantari dagon artean.

Ipañ aldean itsasoa,
Ikusgaik ego aldera,
Ondaribia, Irun Endayak
Dagite kabi polita.

Aiztak legeztxe iru eriak
Bidaso-ibai bastarean
Ondaraitzko plai eder bidez
Itsason sartu nayean.

Oyanak, zelai oflegiak,
Zagardik, gero aneika,
Euren tarfen etxe txuriak
Usoak dirudiela.

Alde batetik Guadalupe,
Ta bestetik iturria,
Bigarren gaztelu ondoan
¡Ze egon toki atsegiña!

U'RETXINDO'RA

U'retxindo'ra txori abeslaria
Doñu gozo ta zolikoa,
Gau ta egun Jainkoari abestuten
¡Zelan zuk daustezu irakastent!

Zugatz-abaretan edo sasia
Ausi gabeko abestian,
Bardiñik ez dezula txorotxiotan
Ozti urdiñaren azpian.

Burnipen, kayolan bazaitue ipinten
Bakañik zara zu ixilduten,
Eta oñela dezu al dozun besten
Zure boñeru zeatuten.

Nik ere nai det egon zure antzera
Gau ta egun abeslaria,
Beti donokiakak legeztxe aintza
Jaungoikori damayodala.

Ta goteungek oben egin erazita
Burnipera iñoz banarama,
Ez du ak entzungo nire abestia
Garbai edo damu ezpada.

Ondaribi, 1924

PITXI - LORA

Pitxi-lora
Dezu izena
Ta benetan
Zareala
Pitxia.

Izarak lez
Goi ozila,
Luña dezu
Zuk apaintzen
Lorea.

Gure landak
Eta munak
Zuk daukazuz
Udabeñin
Alayak.

Zuregaltik
Oñazplan
Udabeñin
Daukaguz guk
Izarak.

Aurak gera
Ai ze pozal
Aurak lagun
Pitxi-lorak
Bilaka.

Pitxi-lorez
Gure soiña
Apain gurez
Mila izarez
Jostaka.

Ondaribi, 1924.

ENADAK

Zetarako oñen ego zoliak
Enada egazlariak,
Beti luñ-ondoan bazabiltze
Goitu gaberik izañak?

Ikusi emen nere gogoa
Egatu-miñez gaxoa,
¡Banituzke nik zuen egoak
Igoteko donokira!

la pizka batean aŕen baitu
Gogo oni zuen egoak,
Eta laster ditut nik goituak
Odei-matasa ta izaŕak.

Eta donoki-abe batean
Egiñik nere kabia,
Egongo naiz beti Jainkoentzat
Pikuan aintza detala.

Ondaribi, 1924

IZAR LORE EDO AUR JESUSEN ZAPATATXUA

*Bedar politaren
Puntaren puntan
Dotore zagoz zu
Lau bost loretan.*

Udabari lorekin
Etoñi batera,
Negu etoñlañte
Gugaz beti zara.

Altistean antzera
Izaki txikia,
Baña altistea lez
Gustia distira.

Daukazun margotxua
Bai dala polita,
Urdin zuria dala
Azal ezinkoia.

Aur Jesus zapatatxu
Izena daukazu,
Ta izen ori loretxu
Ondo datorkizu.

Nik ez dakit ligiton
Oin-zamu biguna
Ume Jaungoikoentzat
Izandu bazara.

Baña otseintza ori zuk
Egin baziñion
Agian gauz oberik
Ezan izango iñon.

ORĪĀ

Ez datorkizu gaizki izen ori
Zuri ĩla begikoa,
Baña begikoago zait niri
Deitutea loreĭla.

ĭla ontan daude gure landak
Ederto apainduak,
Mota ta zenbakin edesgeak
Dituela pitxiak.

Laster gaude umatuak digute
Zugatz igalariak,
Badator gure aroa-eta
Zoroztu zuen orizak.

Egun guztian ixildu gabe
Txori abeslariak
Eresiz betetzen dizkigute
Sentsun eta gogoak.

Il̃a ontan izadi guztia
Dirudi dagoala,
Bizitza ta indárez gañestuta,
Zoruna dariola.

Ondaribi, 1924.

KUKUA

Ari bada kukua
Oyanan kantari,
Ez zalantzarik izan
Etor da udabeñi.

Iyutika arkumeak
Dabiltza lařetan,
Kukuaren kukua
Entzuten danean.

Ta kuku-praka bila
Aurak zelayetan,
Kukuaren oroyaz
Pozturik benetan.

Didar alaya dagi
Artzayak mendian,
Kukua lenen aldiz
Entzun dabenean.

Ta esku poltzilora
Sorginkeritsuak,
Ikusteko ote ditun
Poltzilon txanponak.

Kukuaren kukua
Udabari-kiman
Entzutea nai nuke
Urango urlean.

Ondaribi, 1924.

ENADA, ERIOTZAN (1)

Beti naz ibilia
Uda ausikean
Bokaru gozok yanaz
Ni beti aizean.

Ego zolik nituan
Jainkoak emanak;
¿Nork esan bira-birak
Eurekaz egiñak?

(1) Iruña'n bigafen sariaz saritua, 1926'an *Euskeraren Adiskideak* antolatuko sariketan.

Txofo!xiok goizean,
Bañiz iluntzian,
Nik urango eguna
Ez nuan gogoan.

Baño orain kaskabarak
Elurra ta jelak
Ekarri dizkidate
Otzikara ilkorak.

Gau aztuna ganean
Samiña bañenan,
Ego zoliak aulak
Dardara danean.

Joatea nai nuke
Eguzki berora,
Baña ezin naiz joan
Banago auldua.

Ta pii itun batzuek
Goibel oguzlta,
Besterik gabe ilten da
Enada gaxoa.

III

NASKALDIA

III
NARRALDIA

AMAREN MAITETASUNA

Indaígarí gabeko
Maitasunik bada,
Ama-maitetasuna
Besterik ez dala.

Iñoz itsustasunak
Ezer badaraká,
¿Ama-biotza ezik
Besterik zer daká?

lñor aztuten ez dun
Maitasunik bada,
Lilitxu eder ori
Ama-biotzen da.

Sendiko mayan dagon
Ogi gozoena,
Guztik asetuaren
Oso dirauena,

Jainkoak banatuta
Geyagotzen dauna,
Ama-biotzak daukan
Ogi-alaztuna.

Umezurtza ezpanitz
Ezin ziñestu nik,
Ama-maitetasuna,
Iraunge ziñanik.

Ondaribi, 1918

UMEZURTZ OSO-OSOAN

Alde guztietatik umezurtz,
Ama ila, aitik ez, anairik ez,
Ditudan gurasordek baño
Askoz obe batere euki ez.

Umezurtz etxean,
Umezurtz kanpoan,
Aren, Jauna, ni bezela
Ez iñor utsi munduan.

Ondaribi, 1924.



OIÑAZETUAZ ERUKI

Sufritzen dagonaren bizitza
Bizitza kupigari da,
Sufritu detanen oroipenak
Oraindik damat ikara.

Oiñaze itsasoan erori nintzan
Oindik nintzala mutiko,
Ta gazte naizela zar egin naiz,
Samiñak jan nautelako.

Onginal aurkituko noala
Nik uste nuan tokian,
Samin-kateak idoro nitun,
Ta ni beti oiñazetan.

Txikia nintzala galdu nuan
Neure amatxo maitia,
Geroztik ez dakit nolakoa dan
Maitasunen palagua.

Jainkoari eskerak irten naiz
Oiñaze-ltsaso oretatik,
Eta pozañen pozez biotza
Leñtu beaen yabilkit.

Baña igaroaz oroi naizela,
Dasayot nik gizonari:
Jaungoikoaren izan zaitea
Oiñazetuaz eruki.

Ondaribi, 1924

ERBESTETUA

*Quomodo cantabimus canticum
Domini, in terra aliena. (Ps. 136).*

Ereka andiaren bastaŕean
Lur-aŕotzean egoan
Abertzale zintzo ta bizkoŕa,
Aberŕiaren oroyan.

Aulak eukazan bere belaunak,
Biotza erdibitua;
Aberŕi ajolak saŕtu zion
Ituna biotz baŕura.

Onela egola ikusi zuan
Erbestetuta eukanak;
¿Zergaitik ez dezu abestuten?
Esaten dio zitalak.

Ezin nezake inola nik abestu
Erbestetua nagola,
Ez det ezergatik abestuko
Nere aberin ezpada.

Aberitzaleak amets gozoa
Ezuan geyago ikusi,
Ta aberi-onez, bere bizia
Eskeiñi zion Jaunari.

Ondaribi, 1924.

BATZUGEAK (neutralak)

Batzugen izenak idazteko
Daukat idazti berezia,
Urriak igaroak direla
Oraindiño izenik gabea.

Taíte oíetan entzunik ditut
Itzaldi gaítsuak ugari,
Batzugetasuna aldeztuteko,
Politike botata iñori.

Baña oraintsu jaupari bateri,
Jatori-sutsu dariola,
Arazo onetaz entzun nion nik
Itzaldi berebizikoa.

Itzaldi amaitu zuanean,
Agertu nion idaztia;
Edesturik itz gutxitan ari
Idaztiaren edestia.

Etzidan eskatu idaztia-ta
Ondik dago garbi-garbia,
Ariketa nik arkituarite
Bertan nok idatzi egia.

Ondaribi, 1924

AMERIKETAKO ANAYERI

¿Zegaitik ezatoz anai
Zure jayoteñira,
Beti betiko utsirik
Ipañ-ameriketa?

¿Ez al zara oroitutzen
Nere gogoan aintzin
Alde ortara jotean,
Zeuk emandako itzakin?

Bost urte baruan, anai,
Emen neukazu itzuli,
Beste bost igaro dira
Zu inun etzera agiri.

Eunka idatzi ditzudaz nik
Aro oretan idazkik,
Biotza itsul zaizu burni,
Bestela dezu urturik.

Beti alperik idazten
Aspertua nago, anai;
Itzuli, aien, itzuli,
Biok jartzeko alai.

Ondaribi, 1924.

GURASO BAKO UMEA

Ez amarik eta ez aitik
Ez daukazun umetxua,
¿Zergaitik zabilta yoranez
Zure gurasoak bila?

¿Ez dakizu ondo gordeak
Zu yayo ziñan ordutik
Eurek eskutun dagozala,
Zuk ez ezagutzegaitik?

Eta aurkituaŕen ere
¿Zetarako nai dituzu?
Aik ez dute zure beaŕik:
Ayekaz aztu zaite zu.

Ez artu itz onek balira lez
Zu samintzeko esanak;
Iñor samintzen ibilteko
Neurek ditut ikusiak.

Ez amarik, eta ez aitik
Ez daukazun umetxua,
Ume guztien aŕten zara
Ume eŕukigaŕiena.

Ez, aŕen, ludian bilatu
Zure itunen gozakia;
Jaso begiak, begiratu
Jesus gurutzetugana.

An ikusko dezu Jesusek
Zuri ematen dizula
Zure aitatzat bere Aita
Eta amatzat bere Ama.

SAGAR-ALATZA

Maitasuna ez da maitatua, dio
Asista' Prantzisko andiak,
Eta bein ta ba'iz itz onek esan-da
Azaldatzen ditu ozteak.

Maitasun eta penitentzian dago
Beste kristo bat egiñik,
Eta kristok, egi ori azaltzeko,
Dauka bere irudiz jantzirik.

Jaungoiko-maitasunan sua ta gaia
Nun nai zabaltzeko urduri
Dabilen txinparta dalako Prantzisko,
Suan nai du guzi kiskali.

Zar ta gazteak, maia guzitakoak,
Aren itza entzutearen,
Alkaren leyan zijoazte guziak,
Azkenak ez izatearen.

Txorik ere aren itza entzuteko
Poz-pozik joaten ei ziran,
Azkenekoak lenengoak zirela
Enada egalarietan.

Bein Gaetara itzaldikari zijoala
Zalduna datorka bidera,
Ziñez afinduz egun atan bazkaltzen
Joateko beren etxera.

Bayezko itza emanik Prantzisko Deuna
Badoya eliz alderantza.
Ta zalduna, etxeko andra, neskame ez,
Guziak dijoaz elizara.

Neskame, bi urteko aurá zaitzeko,
Etxen bakarik gelditzen da,
Adu txafekotzat beraren burua
Ta biotza artega daukala.

Ikusten ditu ozteak elizara
Joaten, jauregi auretik,
Eta txori pila egada zolian,
Etxeko taletu gaiñetik.

Eta Prantziskon itza entzutearen,
Umea jauregin utxirik,
Biotz-nayak erakañita, dijoa
Egaz lez txorien atzetik.

Abo zabalik entzun dio itz gartsua
Asistat Prantzisko Deunari,
Ta lasterkada batean biurtu da,
Kontu egiteko aurari.

Ta doekabek arkitu zuan aurá
Ur irikitan egosia,
Ta baztarak ikaratuteko eran
Ari zan negat ta oruka.

Deuna arera onenagaz artzearen
Laster dira guztik etxean,
¡Aren naigabea ikusi zutenean
Aurá egosia pertzean!

Baña Prantzisko egun atan nai ta ez
Izango da alaitsu artua,
Ta euren makaltasunen indarturik,
Kutxan gorde dute gorpua.

Gertu dute bazkaria, etoñi da
Prantzisko Deuna jauregira;
Emanik alkarí ongi-etoñiak,
Bazkaltzeko eseri dira.

Goi-argiaz ezagutu du Prantziskok
Etxe atako zoritxara,
Baña mai-azkenak etoñiarítean
Egin du ezauken itxura.

Orduan esaten du Prantzisko Deunak:
Ez det txastatuko goxorik,
Baña oñen usai gozoko sagaía
Nik txastatuko nuke pozik.

¿Baña zer ari zara esaten, jauna,
Etxean ezpadet sagañik?
Eta sagañaren usai gozoa, diño,
¿Zelan bada sentitzen det nik?

Sagar usai gozoa dagon tokian
Sagañak ei daude agian,
Kutxa ortatik dator sagañ usaya
Beraz sagañak daude bertan.

Prantzisko, dasayo malkoak dario
Etxeko nagusik Deunari,
An ez dago sagañik, baña etoñi,
Ta an gordea detana ikusi.

Badijoaz guzik kutxa irikitera,
Prantzisko ez bestek dardaka,
Iriki dabe kutxa... ta ume pañeka,
Eskutan bi sagañ ditula.

Ondaribi, 1924

AMAREN ERIOTZAN

Adizkide ona, zuk didazu
Aspaldian nagola ixil,
Eta nola nezake abestu
Amatxo egin bazait il,
Amatxo egin bazait il?

Euren amatafik aldatzean
Ez dabiltzez arkumeak
Ijutika ta zear-zearka,
Be-beka dabiltz itunak
Be, beka dabiltz itunak.

Niri ere, umetxoa naizela,
Amatxo kendu didate,
Ta augaitik bizi naizen artean
Antzirika ikusko naute,
Antzirika ikusko naute.

Kabin txorikumak pozik daude
Gabiraik ama janañte,
Antziri, gosea, ixil ituna
Gero ariketa ilañte,
Gero ariketa ilarte.


Ni ere pozik egoten nintzan
Neure amatxon magalan,
Ordun neretzat abestutea
Arnasa artutzea bai zan,
Arnasa artutzea bai zan.

Bere onginik indartzen nindun
Egoteko beti alai,
Ta bere begitadak beartu
Jarduteko abestiri,
Jarduteko abestiri.

Baña orain eriotz-gabirayak
Eraman dit ama niri,
Ta ni beti goibel oldoztuten
Beriz ama noiz ikusi,
Beriz ama noiz ikusi.

Ondaribi, 1924.

A. M. D. G.



BILABIDEA

Irakufleari	3
-----------------------	---

JAINKOTIAK

Ama sortzez garbiari	7
Belenen	10
Prantzisko Deunaren ogasuna	12
Jesusen Izena.	19
Jainko-egafia.	22
Miren-Izena	24
Lenbiziko alatza	27
Jesusen Biotza	30
Otoitza	32
Margarite	34
Austeŕe	37
Neketako Amari	40
Ostiral Guren	45
Obena	48
Maltzurkeriz zerura	51
Bildots Donea	56
Aita gurea	58
Begoñako Ama	60
Asis'tar Prantzisko Deunaren eriotza	62
Jose Deuna	65
Eriotza	67
Kabian afia	69
Sendi Deuna	72
Ernioko Gurutz Deuna	74
Zumetxagako Mikel Deuna	76

Bi penitenteak	78
Afena Miren Amari	80
Gogoa	82
Negafa	84
Azken-Eguna	86
Afena Donokiko Artizafari	88

LANDAKO LORETXUA

Birigafoa	92
Udabafi-lorea	94
Eduf-maluta	96
Pinpilinpauzak	98
Jaizkibel	100
Ufetzindofa	102
Pitxi-lora	104
Enadak	106
Izaf-lore edo aur Jesusen zapatatxua	108
Ofila	110
Kukua	112
Enada eriotzan	114

NASKALDIA

Amaren maitetasuna	119
Umezurtz oso osoan	121
Oinazetuaz efuki	122
Efhestetua	124
Batzugeak. (neutralak)	126
Ameriketako Anayari	128
Guraso gabeko umea	130
Sagar-alatza	132
Amaren eriotzan	137

Itz batzuen ikur edo sinifikaduak

Abeslari= <i>kantaria</i> .	Gogoa= <i>arimea espiritua</i> .
Adu= <i>suertea</i> .	Goizpef= <i>ebanjeltoa</i> .
Aintza= <i>goramen, alabanza</i> .	Gotzon= <i>aingerua</i> .
Aintzin= <i>kontra</i> .	Guda= <i>gera</i> .
Alatza= <i>mitagroa</i> .	Gudari= <i>soldadua</i> .
Altistea= <i>perta</i> .	Gurtu= <i>odoratu</i> .
Anei= <i>mila</i> .	Idatzi= <i>eskribidu</i> .
Afena= <i>eskaria siptica</i> .	Idazlari= <i>eskritorea</i> .
Atzipetu= <i>engañotu</i> .	Ijutiko= <i>saltoka</i> .
Azketsika= <i>parkeske</i> .	Ikuskizunak= <i>bistak</i> .
Baitu= <i>prestar, eman</i> .	Irakaslea= <i>maisua</i> .
Batzugea= <i>neutrala</i> .	Itz= <i>berba</i> .
Bidutzi= <i>monstruo</i> .	Izkiñu= <i>arma</i> .
Darakusgu= <i>erakusten dauku</i> .	Izketa= <i>berbetea</i> .
Dakustenean= <i>ikusten dabe- nean</i> .	Leya = <i>porfia elkarren leyan</i> = <i>a porfia</i> .
Deuna= <i>santua, Donea</i> .	Ludia= <i>mundua</i> .
Edeftidea= <i>artistico</i> .	Maluta= <i>copo, edur - maluta</i> = <i>copo de nieve</i> .
Edestu= <i>kontau</i> .	Margoa= <i>kolorea</i> .
Erazkunez= <i>deboziñoz</i> .	Mentsua= <i>obediente</i> .
Ereusuge= <i>dragón</i> .	Mezua= <i>mandatua</i> .
Eresintsua= <i>armonioso</i> .	Obena= <i>pekatua</i> .
Eskier= <i>segurua</i> .	Obi= <i>sepultura</i> .
Espetxean= <i>kartzelan</i> .	Odia= <i>kafioa</i> .
Ezauke= <i>ezezauna</i> .	Ogasun= <i>tesoro</i> .
Garbaya= <i>damua</i> .	Oguzi= <i>pronunciar, esan</i> .
Gaimelufaitz= <i>olivo</i> .	Oinzamu= <i>alfombra</i> .
Gentza= <i>pakea</i> .	Oldaf= <i>momentua</i> .
Geznaria= <i>mandataria</i> .	

Olefkiak=*bertzoak*.Onginai=*kariñua*.Ontafte=*mesedea*.Ori=*belegi*.Oyana=*bosque*.Pinpilinpauxak=*mariposas*.Txastatu=*probar, gustar*.Ufetzindofa=*ruiseñor*.Ufinkai=*perfume, aroma*.Uzkuftza=*erlijijñoa*.Jaupari=*abadea*.Yoranez=*erderazko con afán*.Zabaya=*egutera, solana*.

IRAÑ-UTSAK

Badagoz idaztitxu onetan irañ-uts batzuk:

Zorundunak, zorundunan ordez, 29'en ingoskian.

Uzlora, zulora ordez, 40'ingoskian, eta abaf;

baña uste dot irakurlearen adimen-argi ta sentsunak ezez zuzenduko daituela.



